



EAE-KO LANTEGIETAN JARDUERA MODU SEGURUAN ABIARAZTEKO JARDUKETA GIDA

COVID-19k eragindako pandemia kontrolatzeko hartu den aparteko eta premiazko neurrietako bat lantokiak ixtea izan da.

Lan-jarduera aurki eta pixkanaka berrabiarazteko, Administrazio publikoak beharrezko neurriak hartu behar ditu jarduera horretarako itzulera modu ordenatuan eta seguruan egiteko.

Horretarako, bereziki garrantzitsua da nahastuta dauden alderdi guztien lankidetzeta, inplikazioa eta konpromisoa jasotzea: gizarte-eragileak, enpresak, prebentzio-zerbitzuak, organismoak eta administrazio-zerbitzuak, adibidez, OSALAN, Lan Agintaritzeta edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzeta.

1. GIDA HONEN HELBURUA ETA XEDEA:

Gida honen helburua da lantokiak berriro zabaltzeko prozesuetan laguntzea, sor daitezkeen desadostasunak azkar konpontzeko OSALANen, Lan Agintaritzaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren zerbitzuak hor daudela gogoratuz.

Gida honen xedea da langileen osasuna bermatzea. Horretarako, beharrezko neurriak aurretiaz hartzea bilatzen du, produkzio-jarduera —COVID-19k eragindako krisi sanitarioko egoera kudeatzeko alarma-egoera adierazi duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretu bidez agindutako alarma-egoeraren ondorioz— lehenbailehen eta, behar izanez gero, pixkanaka berrabiarazteko (edo normalizatzeko, jarduera ezinbesteko gutxienez mugatua badago), mugikortasunari eta produkzio-jarduerari lotutako murrizketak kendu bezain laster, eta langileen osasunarentzako segurtasun-bermeekin eta bertan nahastuta dauden alde guztien konfiantzarekin egin ahal izateko.

2. LIDERGOA:

Gida honen koordinazio operatiboa Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak bere gain hartzen du, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 8. artikulua bidez emandako eskuduntzen arabera. Izan ere, berari dagokio lan-harremanen eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan gizarte-eragileek lortutako akordioak sutatzea eta babestea, goi-mailako zuzendaritza- eta koordinazio-lanak burutzea, eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren funtzionamendua bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan. Halaber, Lan eta Justizia Sailera atxikitako administrazio-erakunde autonomoa den OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu nagusiko buru ere bada.

Gida honen koordinazio operatiboa gauzatzeko, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak, funtzionalki, OSALANen —Osalan sortzeko abenduaren 21eko 7/1993 Legearen 1. artikulua araberak, laneko arriskuen prebentzioaren arloan politikak kudeatzeaz arduratzen den erakundea— eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren —enpresetan laneko arriskuen prebentzioa betearazteko dituen eskuduntzengatik— laguntza izango du, beste agintaritzak batzuen —osasan-agintaritzak, adibidez— eskuduntzen kalterik gabe.

3. NAHASTUTA DAUDEN ERAGILEEK BURUTU BEHARREKO JARDUKETAK:

a) OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

- Osasun-irizpideak jarraituz, jarduketa-protokoloak eguneratuak mantenduko ditu, jarduera-sektoreei jarraibide gisa erabiltzeko balioko dizkieten tresnak emanez.
- Prebentzio-zerbitzuetarako gomendio operatibo batzuk prestatuko ditu. Gomendio horiek Gida honetan jasoko dira ERANSKIN gisa.
- Covid-19ren aurrean prebentzio-neurriak erabakitzen eta ezartzen parte hartzen duten instituzioen eta erakundeen artean behar diren jarduketak koordinatuko ditu.

b) PREBENTZIO ZERBITZUAK

- Prebentzio Zerbitzuak funtsezkoak dira pertsonentzako segurtasun- eta osasun-berme egokiekin produkzio-jarduerara pixkanaka itzultzeko.
- Prebentzio Zerbitzu bakoitza, ahalik eta azkarren, bere enpresa erabiltzaileekin jarriko da harremanetan, enpresa zehatz batean jarduera modu seguruan abiatzeko asmoz langileen osasuna bermatzeko jarduketa-protokolo bat helarazteko.
- Covid-19ren aurrean, lana beharrezko segurtasun- eta osasun-bermeekin garatzeko nahikoak eta egokiak diren prebentzio-neurri guztiak jasoko eta zehaztuko dituzten kontingentzia-planak prestatzen, ezartzen, aplikatzen eta hauen jarraipena egiten enpresekin elkarlanean jardun beharko dute, osasan-agintariek eta OSALANek egindako gomendioak eta jarraibideak betez.

c) ENPRESAK



- Idatziz edo beste edozein bitarteko telematikoren bidez langileen ordezkariari eta, halakorik ez badute, langileei zuzenean, gutxienez 48 ordu lehenago, lantokia berriro zabaltzeko asmoa adieraziko diete.
- Prebentzio-neurrien plana prestatu edo, hala badagokio, abiarazi beharko dute, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean, lantokietan beharrezko segurtasun- eta osasun-baldintzak, eta Covid-19ren aurrean bertako plantillaren osasuna modu egokian eta behar bezala babestea bermatzeko.
- Jarduera abiarazteko Gida horren berri emango dute, eta prebentzio-ordezkariak parte hartuko duten laneko Segurtasun- eta Osasun-batzordeei kontsultatuko diete eta hauen onspena jasoko dute; beti prebentzio-zerbitzuaren aholkularitza jasoz.

Langileen legezko ordezkariarik ez dagoen enpresetan, prebentzio-ordezkariarik ere ez badago eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko batzorderik eratu ez bada, abiarazteko Gidarekin lotutako kontsulta enpresa kokatua dagoen produkzio-sektorean ordezkariak zabalena duten sindikatuarekin batera egin beharko da.

- Abiarazteko Gida hori prebentzio-zerbitzuaren laguntzarekin ezarriko dute.

d) **ENPRESA ERAKUNDEAK:**

- Jarduera abiarazteko Gida martxan jartzearekin langileen osasuna bermatzeko OSALANen beharrezko aholkularitza jaso eta harekin batera jardungo dute.
- OSALAN burutzen ari den jarduketan eta abian jarritako operatiboaren berri emango diete beren enpresa elkartuei.
- Ondorengo jardunbideen berri emango diete beren enpresa elkartuei:
 - a. Covid-19ren aurrean, lanean langileen segurtasun-baldintzak eta osasuna bermatzeko antolakuntzako neurri prebentiboak — kolektiboak eta banakakoak— plan bat ezartzeko obligazioa eta erantzukizuna dute.
 - b. Enpresa berriro zabaltzea aurreikusitako data baino ahalik eta aurrerapen handienarekin, Prebentzio Zerbitzuen eta enpresaren arteko elkarrenganako komunikazioa bermatuko dute.
 - c. “Lantokietan Covid-19ren eraginpean egoteko arriskua murrizteko enpresaburuek jarraitu beharreko urratsak” dokumenturako esteka kontsultatu behar dute.



- d. Prebentzio-zerbitzuak egindako gomendioen jarraipenean eta prebentzio-neurriak hartzean erakundeko pertsona guztien arteko ahalik eta lankidetzaz estuena ahalbidetu behar dute. Bereziki, Segurtasun eta Osasun Batzordeetan alde sozialari kontsultatu eta, hala badagokio, harekin adostu behar dute, eta prebentzio-ordezkariei lankidetzaz jaso behar dute.
- e. Hartutako prebentzio-neurriak enpresan bertan eta lantokian euren jarduerak burutzen dituzten enpresa guztietan zabaldu behar dituzte koordinazio egoki bat lortzeko, baita euren bezeroen artean ere, bereziki jendearen arretarako aurrez aurreko zerbitzu bat badute.
- f. Desadostasunak badaude, desadostasun horiek OSALANeko eta Laneko Ikuskatzailetzako zerbitzuei planteatu behar dizkiete.

e) **ERAKUNDE SINDIKALAK:**

- Jarduera abiarazteko Gida abian jartzearekin langileen osasuna bermatzeko OSALANen beharrezko aholkularitza jaso eta harekin batera jardungo dute.
- OSALAN burutzen ari den jarduketei eta abian jarri den operatiboari buruzko informazioa emango diete langileen ordezkariari, euren afiliatuei eta Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideei eta prebentzio-ordezkariei.
- Dagozkien prebentzioko ordezkariarekin eta batzordeekin koordinatuko dira, eta kontsultari eta beste jarduketa batzuei lotutako aholkularitza eman ahal izango diete.
- Kontingentzia-planek bildu behar dituzten edukien eta prebentzio-neurrien informazioa emango diete langileen ordezkariari, euren afiliatuei eta Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideei eta prebentzio-ordezkariei, Prebentzio Ordezkaritzako langileek eta/edo Segurtasun eta Osasun Batzordeek lantokietan plan horiek ezartzen, aplikatzen eta jarraitzen aktiboki parte hartu ahal izateko.
- Akordiorik ez badago, desadostasun hori OSALANeko eta Laneko Ikuskatzailetzari planteatuko diete.

4. DESADOSTASUN KASUTAN JARDUTEKO MODUA

- Jarduera abiarazteko Gidaren gainean enpresan adostasunik ez dagoenean eta, hala ere, enpresak lantokia berriro zabaltzeko asmoan aurrera egiten duenean, honako jarraibide hauek beteko dira:



- a. Aldeek OSALANi aholkularitza eskatuko diote kontingentzia-planaren barruan langileen osasuna bermatzeko neurri egokiak jasotzen ote diren argitzeko. Helburu horrekin, behar den informazioa bilduko da gomendio edo, behar izanez gero, hobekuntza egokiak eskainiz, era horretan desadostasun horiek konpontzen saiatzeko.
 - b. Oraindik adostasunera heltzen ez badira, Laneko Ikuskatzaitzak txostena egin ondoren, Lan-agintaritzak egoera 24 orduko epean ebaluatuko du eta, egoeraren arabera, dagokion moduan jardungo du.
- Enpresa bat jarduerara abiarazteko Gida hori finkatu gabe itzultzen denean, interesdunek Lan Agintaritzara jo ahal izango dute. Honek, Laneko Ikuskatzaitzarekin eta OSALANekin batera, egoera lehentasunez ebaluatuko du eta behar diren neurriak hartuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 11

ERANSKINA

**COVID-19 HEDATZEA ETA KUTSATZEA EKIDITEKO LANGILEEN
SEGURTASUNAREKIN ETA LAN OSASUNAREKIN LOTUTA, PREBENTZIO
ZERBITZUENTZAKO OSALANEK PRESTATUTAKO GOMENDIO OPERATIBOAK**

**JARDUERA ABIARAZTEA / FUNTSEZKO EDO SALBUESPENEZKO JARDUERAK
MANTENTZEA**

A.- Helburua

Prebentzio-zerbitzuaren eta enpresaren arteko koordinazio eraginkorra finkatzea.

Lanean izan ditzaketen arriskuen aurrean, enpresa langileen segurtasunaren eta osasunaren erantzulea den arren, prebentzio-zerbitzuak enpresari babes teknikoa eman behar dio arrisku horiek ebaluatzeko, baita hauek ezabatzeko, murrizteko edo kontrolatzeko behar diren neurriak abian jartzeko ere.

B.- Irismena

Dokumentua prebentzio-zerbitzu guztietara zuzentzen da, hauen modalitatea edozein izanda.

C.- Kontingentzia Planaren garapena

Lanera itzultzeko **lantoki bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako Kontingentzia Plan bat eduki eta mantendu beharko da. Plan hori COVID-19ren balizko kasu edo harreman estuak agertzea prebenitzera eta haiei erantzutera zuzendu behar da.** Has zaitezte prestatzen enpresarekin elkarlanean.

Lanerako plan hori bertan jaso behar diren ondorengo urratsak jarraituz prestatuko da. Bertan gutxienez barne hartu beharrekoa:

- Enpresan dauden lanerako eta atsedenerako lekuen deskribapena.
- Lanpostuen eta lan-prozesuen deskribapen xehatua.
- Bertan ere aurreikusiko dira:
 - Lantokitik kanpo jarduten duten langileen berezitasunak.
 - Lantokirainoko joan-etorriak egin ahal izateko modua.
 - Lantokian azpikontraten edo beste enpresa batzuen presentzia, eta euren egokitzea jardueren koordinazioaren barruan.
 - Enpresaren jarduerak bezeroekin, erabiltzaileekin edo erakundetik kanpoko beste pertsona batzuekin tratua barne hartzen ote duen.
 - Telelana, ahal den guztietan.
- Horretan oinarrituta, kontingentzia-planean bilduko diren hainbat antolakuntza-neurri, neurri kolektibo eta bakarkako neurri definituko dira. Horretarako:
 - Jarduerak aurrera jarraituko duela bermatzeko behar diren antolakuntza-neurriak finkatuko dira. Horien artean ordutegiak malgutzeko neurriak, lantokietan aldi berean diharduten langileen kopurua murrizteko neurriak, funtsezkoak ez diren bilerak edo bidaiak ezabatzeko neurriak eta abar aipa genitzake.
 - Pandemiaren ondorioz langileen baja posibleen aurrean behar diren antolakuntza-neurriak finkatuko dira. Giza baliabide eskuragarriak



identifikatuko dira eta eginkizunak burutzen jarraitzeko funtsezko lanpostuetarako ordezkapen-kate bat balioetsiko da.

- Egoera guztietan pertsonen artean —bai langileen artean, bai bezeroekin edo erabiltzaileekin— gutxienez 2 metroko distantzia gordeko da.
- Banaketa eta antolaketa espaziala analizatuko da, baita lan-prozesuena ere —adibidez, barruti eta pabilioi itxitan, prestaketa- eta aukeraketa-aretotan eta abar lan egitea—, segurtasun-distantzia bermatzeko.
- Prebentzio-zerbitzuak erabakitzen duen eginkizunetan edo prozesuetan norbera babesteko ekipamenduen beharra aztertuko da.
- Jangela edo aldagela bezalako lokalak erabiltzean distantzia-neurriak beteko dira, mailaketa-planak finkatuz.
- Langileek ura eta xaboia erraz eskuratuko dutela ziurtatu behar da, baita behin erabiltzeko lehertzeko papera eta paperontziak ere. Hori bermatu ezin den lekuetan, gel hidroalkoholdunak.
- Jendearen arretarako espazioetan, aurreko gomendioez gain, behin erabiltzeko paperezko musuzapiak eta zabor-poltsez estalitako paperontziak daudela ziurtatu.
- Instalazioetan, azalereetan eta lan-ekipamendutan behar bezalako garbiketa egingo da.
- Prebentzio-neurrien eta hauen eguneratzeen inguruan, enpresari eta langileei behar bezalako prestakuntza eta informazioa eman beharko zaizkie, eta gaixotzen diren edo kontaktu estu bihurtzen diren pertsonak lantokira ez joateko beharraz eta abar ere jakinarazi behar zaie.
- Covid-19ren krisian zehar, prebentzioko salbuespen-jardueren koordinazioa egiteko zuzendaritzako pertsona bat edo langile bat izendatzea aztertuko da. Pertsona hori enpresako langile guztien erreferentzia-puntu izango da. Burutzen diren ekintzen erregistro bat egitea gomendatzen da.

Urrats horietako bakoitzean, deskribatutako neurri guztiak (prebentzio-plangintzaren ohiko neurriez gain) betetzeko modua aztertu behar da, eta, era berean, gomendioak betetzen ez dituzten eginkizunak ez gauzatzea edo aldatzea aztertu behar da.

“Lantokietan Covid-19ren eraginpean egoteko arriskua murrizteko enpresaburuak jarraitu beharreko urratsak” dokumenturako esteka erantsi da.

<http://www.osalan.euskadi.eus/coronavirus/-/covid19-procedimiento-empresa/>

D.- Kontingentzia Plana ezartzeko eta jarraitzeko gomendioak

- 1. Prebentzio Zerbitzuaren eta zure enpresa erabiltzaileen arteko elkarrenganako komunikazioa ziurtatu.**



- Funtsezko zerbitzuak betetzen dituzten enpresak edo salbuespen-baldintzak dituzten enpresak direlako gaur egun lanean ari diren enpresen kasuan, harreman zuzena eduki haiekin, arriskuaren ezagutza eta beharrezko prebentzio-neurriak gomendatuz eta eguneratuz.
 - Jarduera berriro hasiko duten enpresak direnean, haiek lanean hasteko data-aurreikuspena erregistratu, lanean berriro hasi aurretik Plan hau eskuratzeko duten beharra azpimarratuz.
2. Osasun Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren **gomendioetan egindako aldaketan gainean informatu eta zuen enpresei jakinarazi.**

Osasun Ministerioak eta Osasun Sailak argitaratzen dituzten eta euren web orrietan eguneratzen dituzten prozeduretan kontsulta daiteke neurri horiek:

<https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos.htm>

<http://www.euskadi.eus/protocolos-relacionados-con-el-nuevo-coronavirus-covid-19/web01-a2korona/es/>

E.- Osasun Agintaritzekin elkarlana

Zure prebentzio-zerbitzuko osasun-arloak osasun-agintaritzekin batera jarraituko du lanean. Arlo horrek aipatutako agintaritzek adierazten dizkioten prozeduretan bildutako arauak jarraitu behar ditu, eta gomendioetan gerta daitezkeen aldaketekin adi egon behar du. Gaur egun honako jarduera hauek esleituta ditu:

- Kasuen jarraipena egitea eta harreman estuak bilatzea lan-esparruan.
- Osasun Zerbitzu Publikoarekin lankidetzak etxe barruan isolamenduak ezartzeko.
- Osasun Zerbitzu Publikoarekin lankidetzak funtsezko zerbitzuetako langileen diagnostikorako.
- Langile zaurgarrien eta bereziki sentikorren balorazioa egitea.
- Osasun Zerbitzu Publikoarekin koordinatzea langile horiei aldi baterako ezintasuna kudeatzeko.